

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure produktua funtziona dezan ezinbestekoa izango da hozkailuak ekoizten dituen enpresa batekin **akordio on** batera iristea, bai beraiantzat eta baita guretzat. Akordioa hau izango da, saltzen duten hozkailu bakoitzeko %10eko komisioa emango digute, honela guk gure patentea erabiltzen utziko diegu, eta guk bueltan jasoko dugun komisioa baxua izango da, baina nahikoa tratu on batera iristeko. Behin akordio on horretara iritsita, produktuaren **ekoizpen fasea** hasiko dugu. Lehenago aipatuta bezala, hozkailu enpresa batekin kontaktuan jarriko gara, beraiek hozkailuak hornitzeko, eta guk gure teknologia berria sartuz azken modako hozkailuak ekoiztea lortzeko.

Oraindik ez gara enpresa jakin batekin harremanetan jarri, baina **hautagai batzuk** ditugu: Liebherr enpresa, Siemens enpresa, LG enpresa, Bosch enpresa, Balay enpresa eta Fagor enpresa. Enpresa horiek guztiakin aurrera jarraitzea pentsatu dugu, gure bazkide izateko; eta horri esker, enpresa askorekin lan egiterakoan, beraiek gure **patentea** erabiltzearen truke, guk komisioak jasoko ditugu ordainean, guri onura gehiago ekartzeko.

